



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2014IPLE0004

Eguna: 2014/04/12

Ordua: 12:00-12:40

Tokia: Areto nagusia

Bertaratuak

- Andoni Gartzia Arruabarrena	BILDU
- Agin Laburu Rezola	BILDU
- Ione Olatziregi Mendiorotz	BILDU
- Berta Arozena Bergara	BILDU
- Isabel Otero Glorie	BILDU
- Raul Redín Hernández	BILDU
- Zorione Etxezarraga Ortuondo	EAJ-PNV

Bertaratu ez direnak

- Maite Olatziregi Esparza	BILDU
- Ramón Aranzasti Loyarte	EAJ-PNV
- Bixente Arrizabalaga Bengoetxea	Hamaikabat
- Imanol Lizarralde Marín	Hamaikabat

Idazkaria

- Xabin Olaizola Lasa

Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / Nº	ORDEN DEL DIA
Bozeramaile batzordeak onarturiko Erakunde adierazpenari buruz jakinaraztea	1	Dar cuenta de la Declaración institucional aprobada por la Junta de Portavoces
Aberri eguna	2	Aberri eguna
EHBilduren mozioa	2.1.	Moción de EHBildu
EAJ/PNVren mozioa	2.2.	Moción de EAJ/PNV

Esan-eginak eta erabakiak



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

1. Bozera maile batzordeak onarturiko Erakunde adierazpenari buruz jakinaraztea

Emandako epaiaren arabera, Espainiako bandera nahitaez jarri behar da udaletxeko balkoian eta osoko bilkuren aretoan, eta, horregatik, EH Bilduk eta EAJ/PNVk erakunde-adierazpen bat adostu zuten Bozera maileek apirilaren 8an eta 10ean egindako Batzarretan eta Alkateak adierazpen hori irakurri nahi izan du.

Hortaz, alkateak oso-osorik irakurri du erakunde-adierazpen hori:

1. Astigartar gehienek sentimenduen kontra espainiar bandera ezartzera derrigortzen gaituen legearen inposizioa salatu nahi du Astigarragako Udalak eta bere erabateko desadostasuna adierazi.

2. Inposatzen zaigun banderak ez du inoiz herri hau ordezkatu; ez lehen eta ez orain. Espainiako bandera zigor mehatxupear ezarritako sinboloa da gure erakundearen.

3. Herritar gehienek nahiaren aurka eta bere ordezkarien erabakimenaren kontra ezartzen den sinboloa izanda, neurri honek astigartarren borondatearekiko errespetu falta azaltzen du, eta askatasunez erabakitzeko eskubidearen ukapena.

4. Usadioari jarraituz deia egiten diegu astigartar guztiei, 2014ko Aberri Eguna probestuz, etxeetako leiho eta balkoietan ikurrina zintzilikatzeko eskaera eginez.

Jarraian, Zorione zinegotziak ikurrinari

1. Dar cuenta de la Declaración Institucional aprobada por la Junta de Portavoces

Con motivo de la sentencia dictada por la que se obliga a colocar la bandera española en el balcón municipal y en el salón de plenos, el Alcalde da lectura a la declaración institucional que han consensuado EHBildu y EAJ/PNV en las dos Juntas de Portavoces realizadas los días 8 y 10 de abril.

A continuación el Alcalde da lectura íntegra a la precitada declaración institucional:

1.- El Ayuntamiento de Astigarraga quiere denunciar la imposición legal que nos obliga a colocar la bandera española en contra de los sentimientos de la mayoría de los vecinos de Astigarraga, y manifestar su total desacuerdo.

2.- La bandera que se nos imponen nunca ha representado a este pueblo, ni antes, ni ahora. La bandera de España es un símbolo impuesto bajo amenaza de sanción en nuestra institución.

3.- Siendo un símbolo que se impone contra la voluntad de la mayoría de sus ciudadanos y contra la capacidad de decisión de sus representantes, esta medida refleja una falta de respeto hacia la voluntad de los vecinos de Astigarraga, y una negación del derecho a decidir en libertad.

4.- Siguiendo la tradición, realizamos un llamamiento a todos los vecinos de Astigarraga para que, aprovechando el Aberri Eguna de 2014, cuelguen la ikurriña en las ventanas y balcones de sus casas."

Seguidamente la concejal Zorione da



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

buruzko artikulu bat irakurri du, Sabino Arana Fundazioaren webgunean argitaratu dena.

lectura a un artículo publicado en la página web de la Fundación Sabino Arana en relación a la ikurriña

2. Aberri Eguna

2. Aberri Eguna

2.1. EHBilduren mozioa

2.1. Moción de EHBildu

Alkateak EHBilduren mozioa irakurri du:

El Alcalde da lectura a la moción presentada por EHBildu:

1.- Euskal Herritarrak garela adierazteko garaia heldu dela eta ozenki esan nahi dugulako, Euskal Herritartasunaren aldeko herri dinamika sortzeko eta sustatzeko deia luzatzea erabaki dugu.

1.- Ha llegado el momento de manifestar que somos ciudadanos de Euskal Herria, y como queremos decirlo bien alto, hemos acordado hacer e impulsar un llamamiento para crear dinámicas populares en favor de la ciudadanía de Euskal Herria.

2.- Kaleetan zein eraikuntza publiko eta partikularretan Euskal ikurrak jartzeko gonbidapena luzatzen dugu honen bidez. Zer ez garen baino, garena eta sentitzen duguna ikurren bidez publikoki adierazteko gonbidapena luzatu nahi diogu herritar orori.

2.- Lanzamos una invitación para colocar símbolos vascos tanto en las calles como en edificios públicos y particulares. Queremos invitar a todos los vecinos para que, más que lo que no somos, manifiesten públicamente lo que somos y lo que sentimos mediante símbolos.

3.- Zer garen gaur, iragana ezagutu gabe oso zaila delakoan, aitzineko zein garaikidea den oroimen historikoa berreskuratzeko konpromisoa hartzen dugu. Hala ere, iragana baino gehiago, oraina eta batez ere- etorkizunari erreparatu nahi dugunez gero, kultur, hizkuntza eta identitate aldetik anitz eta aberatsa sortzen ari den Euskal Herri berri honi so egiten diogu. Horregatik, atxikimendu librean oinarriturik, Herritartasun Agiri Ofizialaren beharra aldarrikatu, eta ekimen bateratua, ofiziala eta eraginkorra sortzeko konpromisoa adierazi nahi dugu.

3.- Dado que es muy difícil saber qué somos hoy sin conocer el pasado, nos comprometemos a recuperar la memoria histórica tanto antigua como contemporánea. Con todo, habida cuenta de que más que en el pasado queremos fijarnos en el presente y sobre todo en el futuro, miramos a esta nueva Euskal Herria que se está creando, diversa y rica desde el punto de vista cultural, lingüístico e identitario. Por ello, basándonos en la libre adhesión, proclamamos la necesidad de un Documento Oficial de Ciudadanía y manifestamos el compromiso de creación de una iniciativa unificada, oficial y eficaz.

4.- Independentziari buruz Etxarriko herriak apirilaren 13an burutuko duen herri kontsultari erabateko babesa adierazi nahi

4.- Manifestamos nuestro total apoyo a la consulta popular sobre la independencia que se celebrará en la localidad de Etxarri



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

diogu. Erabakitzeke eskubidearen ariketa demokratiko praktikotzat jotzen dugu eta zentzu honetan bere zilegitasuna aitortu nahi dugu.

5.- Zentzu berean eta arrazoi berdinengatik, “Gure esku dago” herri ekimenak ekainaren 8rako antolatu duen Iruñea eta Durangoren arteko giza katean parte hartzeko deia, eta oro har, “Gure esku dago” herri dinamikari erabateko babesa adierazi nahi diogu.

el 13 de mayo. Lo consideramos como un ejercicio práctico del derecho a decidir y queremos reconocer su legitimidad en ese sentido.

5.- Hacemos también, en el mismo sentido y por las mismas razones, un llamamiento para participar en la cadena humana entre Iruñea y Durango que ha organizado para el 8 de junio la iniciativa popular “Gure esku dago”, y queremos manifestar nuestro total apoyo, en general, a dicha iniciativa.

2.2. EAJ/PNVren mozioa

Zorione Etxezarragak EAJ/PNVren mozioa irakurri du:

1.- Euskal Herritarrak garela adierazteko garaia heldu dela eta ozenki esan nahi dugulako, Euskal Herritartasunaren aldeko herri dinamika sortzeko eta sustatzeko deia luzatzea erabaki dugu.

2.- Kaleetan zein eraikuntza publiko eta partikularretan ikurriña (Euskal ikurrak) jartzeko gonbidapena luzatzen dugu honen bidez. Zer ez garen baino, garena eta sentitzen duguna gure ikurriñaren (ikurren) bidez publikoki adierazteko gonbidapena luzatu nahi diogu herritar orori.

3.- Gure herrirako benetako bake eta bizikidetzaren demokratikoa, elkarrizketaren, justiziaren, egiaren eta gure herriaren interes orokorraren bitartez landua izango dena, lortzea helburu duen Eusko Legebiltzarrean abian den Bake eta Bizikidetzaren lantaldeari gure babesa eskaintzen diogu, eta, era berean, baita beste gainontzeko Lurraldeetan sor daitezkeen antzeko ekimenei ere.

2.2. Moción de EAJ/PNV

Zorione Etxezarraga da lectura a la moción de EAJ/PNV:

1.- Considerando que ha llegado la hora de decir alto y claro que somos Ciudadanos Vascos, hemos decidido realizar un llamamiento para crear e impulsar una dinámica popular a favor de la Ciudadanía Vasca.

2.- Así pues, emplazamos a la ciudadanía a colocar la ikurriña y otros símbolos vascos en la calle y en los edificios públicos y particulares. Por lo tanto, invitamos a toda la ciudadanía a expresar públicamente no lo que no somos, sino lo que de verdad somos y sentimos, utilizando nuestra ikurriña y nuestros símbolos para ello.

3.- En este sentido, ofrecemos nuestra colaboración al grupo de trabajo por la Paz y la Convivencia puesto en marcha en el Parlamento Vasco con el objetivo de lograr la verdadera paz y la convivencia democrática para nuestro pueblo, que deberá conseguirse a través del diálogo, la justicia, la verdad y el interés general de nuestro pueblo, y mostramos igualmente nuestro apoyo a todas aquellas iniciativas que con el mismo objetivo puedan surgir



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

en el resto de Territorios.

4.- Egungo gizartean elkarri zor diogun begirunetik, eta guztion ondare diren eskubide demokratikoetatik abiatuz, gure asmoa herritar askez osatutako aberri aske bat lortzea dela aitortuz, justizia soziala eta guztion aurrerabidea bermatuko duena, zer garen ulertzeko oroimen historikoa berreskuratzeko konpromisoa hartzen dugu. Herri bakar bat osatzera garamatzaten ezaugarri eta kultur ondare amankomuna aitortuz eta zainduz, horrekin batera herritar guztien ezaugarri eta eskubideak zainduko dituen gizarte aurreratu bat lantzeko etengabeko asmoa adieraziz.

4.- Desde el debido respeto mutuo entre los integrantes de la sociedad actual, y partiendo de los derechos democráticos que son patrimonio de todos, reconociendo que nuestro objetivo es conseguir una patria libre integrada por ciudadanos libres, garante de la justicia social y del progreso común, nos comprometemos a recuperar la memoria histórica que facilite la comprensión de lo que somos. Reconociendo y conservando el patrimonio cultural común y las particularidades que nos llevan a integrar un sólo pueblo y, al mismo tiempo, expresando un deseo continuo de crear una sociedad avanzada que cuide las características y los derechos de todos.

5.- Independentziari buruz Etxarriko herriak apirilaren 13an burutuko duen herri kontsultari erabateko babesa adierazi nahi diogu. Euskal Herriari dagokion erabakitze eskubide demokratikoaren ariketa sinboliko jotzen dugun neurrian bere zilegitasuna aitortzen diogulako.

5.- Queremos mostrar nuestro apoyo incondicional a la consulta popular sobre la independencia que el pueblo de Etxarri llevará a cabo el 13 de abril. Porque reconocemos su legitimidad, en la medida que consideramos que se trata de un ejercicio simbólico del derecho democrático a decidir que corresponde a Euskal Herria.

6.- Zentzu berean eta arrazoi berdinengatik, "Gure esku dago" herri ekimenak ekainaren 8rako antolatu duen Iruñea eta Durangoren arteko giza katean parte hartzeko deia, eta oro har, "Gure esku dago" herri dinamikari erabateko babesa adierazi nahi diogu.

6.- En el mismo sentido, y por las mismas razones, queremos mostrar nuestro total apoyo a la dinámica popular "Gure esku dago", y, en particular, hacemos un llamamiento a la participación en la cadena humana que unirá Iruñea y Durango organizada para el 8 de junio por la mencionada iniciativa popular "Gure esku dago".

Alkateak zera adierazi du, kontuan hartuta Aberri Egunak esanahi berezia duela eta aurkeztutako mozioak bat datozela puntu batzuetan, bi mozio horiek batera bozkatu beharko lirakeela, eta, hortaz, bi mozioak elkartzeko asmoa dutela.

El Alcalde entiende que por el significado que tiene el Aberri Eguna, y dado que las dos mociones presentadas tienen puntos coincidentes, entiende que se deberán votar conjuntamente, y por ello van a agrupar ambas mociones.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Zorione Etxezarragak adierazi du bakoitzak bere ikuspuntua duela, baina, nolanahi ere, bi mozioak onartuko dituztela.

Bi mozioak bozkatu dira, eta biak ere aho batez onartu dira.

Zorione Etxezarraga manifiesta que cada cual tienen su punto de vista, pero que van a aprobar las dos mociones.

Sometidas a votación ambas mociones son aprobadas por unanimidad.

3. Informazio, galdera eta eskariak

3. Información, ruegos y preguntas

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2014ko apirilaren 12an

Xabin Olaizola Lasa
Idazkaria